



**EITB Taldearen Etika eta Jokabide  
Kodea  
-bertsio exekutiboa-  
(2022)**

---

<b>Helburua</b>	Jokabide eta Etika Kodea deritzon dokumentu honetan, EITBk eta beraren mendeko sozietateak (EITB Taldeak) harturiko jokabide-konpromiso nagusiak jasotzen dira.
<b>Irismena</b>	EITBren Jokabide eta Etika Koderak, honako hauek daude lotuta: <ul style="list-style-type: none"><li>• Administrazio Kontseiluko kideak</li><li>• Zuzendaritzako kideak eta ardura-postua dutenak</li><li>• EITB Taldearen sozietateetako langile guztiak, egoitza, ordezkariak eta korrespontsalia guztietan</li><li>• EITBren bulegoetan lan egiten duten kanpoko langileak, eta praktiketan, bekaldian edo egitarau dualetan ari diren pertsonak</li><li>• Hornitzaileak, bezeroak, administrazioak eta gainerako <i>stakeholderrak</i>, EITBekin dituzten harremanetan.</li></ul>
<b>Stakeholderrak (interes-taldeak)</b>	Jokabide eta Etika Kode honetan jasota dauden oinarritzko printzipioek interes-talde hauek ukitzen dituzte: <ul style="list-style-type: none"><li>▪ Erakundeko pertsonak (barne-harremanak)</li><li>▪ Ikus-entzuleak</li><li>▪ Hirugarrenak eta Merkatua (hornitzaileak eta bezeroak)</li><li>▪ Gizartea</li></ul>
<b>Onespen-sistema</b>	Administrazio Kontseiluan aurkeztua 2019ko uztailaren 23an. Zuzendaritza Nagusiak onetsia 2019ko uztailaren 30ean.  Ezarrita dagoen bezala, 2021ean berrikusi da  2022an berrikuspen berri bat egin da, 1030/2021 Aginduaren argitalpenaren ostean
<b>Sozializazioa</b>	Kode honen zabalkundea lau kanalen bidez egingo da: <ul style="list-style-type: none"><li>• Zuzendari eta arduradunen bidez, <i>lan-taldee</i>.</li><li>• Tortolika deritzon intranetaren bidez, langilearen atarian.</li></ul>

---

- 
- Erosketa Sailaren eta Produkzio Zuzendaritzaren bidez, hornitzaileei.
  - EITB.eus-en bidez, atal korporatiboan.

---

**Atxikipena** Organigramako zuzendari eta arduradunen atxikipena idatziz jaso beharko da

---

**Eguneratzea** Lehen edizioa: 2019-07-30  
Bigarren edizioa: 2021-03-31  
Hirugarren edizioa: 2022-05-01

---

## EITB Taldearen Jokabide eta Etika Kodearen laburpena

EITB Taldeko pertsonak  
zintzoak izan behar dute laneko portaeran,  
legea bete behar dute, eta  
konpromisoa hartu behar dute enpresaren estandar eta balio etikoekin.

### Jokabide-kodearen oinarri diren balio etikoak

Giza Eskubideak	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errespetua pertsonaren duintasunari eta beraren eskubideei.</li> </ul> <p>EITB Taldeak bere egiten ditu Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko edukiak, Nazio Batuen mundu-itunekoak, bai eta giza eskubideei, biktimen arretari eta bake-kulturari lotutako gainerako nazioarteko hitzarmen eta tratatuetako edukiak ere.</p>
Berdintasuna eta aniztasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Errespetua pertsonen berdintasunari eta aniztasunari harreman pertsonal eta profesioaletan, diskriminazio-jarrerarik gabe, atzean dagoen arrazoia sexua, jatorri etnikoa, sinesmena, erlijioa, adina, desgaitasuna, kidesun politikoa, sexu-orientazioa, nazionalitatea, herritartasuna, egoera zibila, estatus sozioekonomikoa edo beste edozein delarik ere.</li> </ul>
Legaltasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Legearen betetzea, salbuespenik gabe, batik bat EITB Taldearen jarduerari eta jarduera horiekin loturiko ekintzei dagokien legeria.</li> </ul>
Profesionaltasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Objektibotasun profesionala erabakietan eta jardueretan, alde batera utzita interes-gatazken eragina, edo EITB Taldearen eta EITB Taldeko langileen zintzotasuna zalantzan jar lezakeen beste edozein egoeraren eragina.</li> </ul>
Erantzukizuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Erakundearen aldetik zein pertsona bakoitzaren aldetik, jarrera arduratsua eta Kode honen printzipio eta irizpideei lotua, zeinak eskatzen baitu —etikoki, zintzoki eta fede onez jokatzuz— kode honen</li> </ul>

	edozein ezbetetzeri buruz informatzea arau honetan bertan adierazten den kanalaren bitartez.
--	--

### Interpretazioa eta betearazpena

Kode honetan, EITB Taldeak (erakunde bezala) eta EITB Taldeko langileek euren jardueretan bete beharreko printzipio eta konpromiso etikoak ezartzen dira.

Printzipio eta konpromiso horien betetzearekin lotuta, aurrerago adierazten diren parte-hartzerako eta salaketarako kanalak antolatu dira, erabilgarri egon daitezen, alde batetik, kode honetako printzipioen ezbetetzea gertatzen denean eta, beste alde batetik, Arauen Betepen Planaren eta, zehazki, Delituak Ekiditeko Programaren arabera delituzkoa izan litekeen jokabidea gertatzen denean. Salaketa kanal hori erabili beharko da baita EITBren Iruzurrak Ekiditeko Planaren ez betetzeak detektatuko balira ere. Izan ere Plan hori EITBren Arauen Betepen Planean txertatuta baitago.

EITB Taldeak behar bezala bermatuko du salaketen edukia eta inplikaturak dauden pertsonak isilpean gordetzea eta errepresaliarik ez egotea salaketa-egilearen aurka.

Salaketarako kanalak:

Pertsonaren batek Kode hau bete ez delako zantzurik edo susmo oinarriturik badu, jakitun ipini beharko du Kontrol Organo Independentea, [salaketak@EITB.eus](mailto:salaketak@EITB.eus) helbidearen bidez.

Salaketa egiteko salaketa formalaren formularioa erabili beharko da, eskuragarri Tortolikan (langilearen atarian) eta EITB.eus-en, kontratatzailearen profilean.

Salaketa baten ostean, beharrezko neurriak hartuko dira ondorio kaltegarriak ekiditeko.

Kode honen haustea edo ez betetzea lan-arloko falta bat bada, indarrean dagoen araudiaren arabera zehatuko da, betiere arau-hausleari beste erantzukizun batzuk egozteari uko egin gabe (EITB Taldearen Arauen Betepen Planaren Erregelamenduan ezartzen denaren arabera).

EITB Taldearen Etika eta Jokabide Kodearen interpretazioa eta betearazpena kudeatzen dituen kontrol-organoa (Kontrol Organo Independentea), hala dagokionean barrutik zein kanpotik heltzen diren salaketak ikertzen eta ebazten dituen, honako hauek eratzten dute:

- ✓ Estrategia eta Komunikazioko zuzendaria (presidentea)
- ✓ Ekonomia eta Finantza zuzendaria
- ✓ Giza Baliabideen zuzendaria
- ✓ Zerbitzu Juridikoko zuzendaria

1. Gure **BARNE HARREMANETAN** konpromiso hauek hartzen ditugu:

<p><b>1.1</b></p>	<p><b>Errespetuzko tratua eta diskriminazioaren debekua.</b></p> <p>EITB Taldean lan egiten duten pertsonak duintasunez, errespetuz eta justiziaz tratatzea, bakoitzaren kultura-sentsibiltatea kontuan hartuta. Bakoitzaren merezimendutik edo gaitasunetatik harago, pertsonak ez diskriminatzea, atzean dagoen arrazoia, arraza, erlijioa, adina, nazionalitatea, sexua edo beste edozein delarik ere. Lanean edozein indarkeria-, jazarpen- edo abusu-modu saihestea.</p>
<p><b>1.2</b></p>	<p><b>Lan-eskubideak babestea, eta bizieta pertsonal, profesional eta familiarren uztarketa erraztea.</b></p> <p>Elkartzeko, sindikatzeko eta lan-baldintzak negoziatzeko eskubideak aitortzea. Bizitza pertsonala, profesionala eta familiarra uztartzen laguntzeko neurri zehatzak hartzea. Eskubide horiek erabiltzeko moduari buruzko informazio eguneratua eskaintzea.</p>
<p><b>1.3</b></p>	<p><b>Zintzoki jokatzeko zerbitzu publiko emateko proiektu eta misioarekin, eta proiektu horren iraunkortasunarekin.</b></p> <p>Pertsona guztiak eta, zehazki, zuzendaritzako eta goi-zuzendaritzako kideak zintzoak izatea, ikuspegi, inspirazio eta zuzentasunaren eredu izan daitezten.</p> <p>Hartzen diren erabakiek EITB Taldearen jasagarritasun ekonomiko eta finantzieroaren printzipioa (orainera begira baina baita etorkizunera begira ere) izan behar dute beti oinarrian bai obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioan eta baita pertsonen lan-kontratazioan ere.</p>
<p><b>1.4</b></p>	<p><b>Bikaintasuna kudeaketan eta jarduera profesionalean</b></p> <p>EITB Taldeko langileak (zuzendaritza taldea barne) bikaintasuna lortzeko lan egin behar dute beti. Modu arduratsuan jardun beharko duten, haien muga eta bete beharreko lege-baldintza eta limitazioak ezagutuz, eta haien jardun guztietan dagokion araudia aplikatuz.</p>
<p><b>1.5</b></p>	<p><b>Aukera-berdintasuna.</b></p> <p>Langileen garapen profesionala sustatuko du EITB Taldeak. Designazio askeko izendapenak oinarrituta egongo dira eta meritu eta konpetentzia profesional eta direktiboak izango dituzte oinarri.</p> <p>Lanbide-garapenari bide ematea, eta plantillako plazak hornitzeko barne-lehiaketak egitea, betiere enpleguko deialdi publikoen lehen fase gisa. Izendapen askeko hautaketak beti egongo dira arrazoituta, eta merezimenduen eta laneko eta</p>

	<p>zuzendaritzako gaitasunen printzipioetan oinarrituko dira. Era berean, EITB Taldeak inbertsio-politika bat zehaztuko du, plantillako langileen prestakuntza pertsonal eta profesionalera zuzendua.</p>
<b>1.6</b>	<b>Leialtasuna.</b> Leialak izatea, iritzi zintzoak emanez, eta isilpeko informazioa behar bezala erabiliz.
<b>1.7</b>	<b>Euskararen normalizazioa.</b> Euskararen erabilera normalizatzeko politikak garatzea barne-harremanetan. Horretarako, euskara normalizatzeko plana egingo da.
<b>1.8</b>	<b>Laneko segurtasuna eta osasuna.</b> EITB Taldeak bere langileei ingurune segurua eta egonkorra eskainiko die, eta konpromisoa hartzen du etengabe eguneratzeko lan-arriskuak prebenitzeko neurriak, bai eta zorrotz betetzeko gai horretan aplikagarria den araudia ere enpresak bere jarduerak egiten dituen leku guztietan.

Aplikagarriak diren lege arauetz gain, EITB Taldeak hurrengo barne arauak ezarri ditu:

- I. EITB Erakunde Publikoko eta haren sozietateetako plantilla finkoan sartzeko arauak.
- II. Laneko prebentzio eta osasunerako sistema (OHSAS 18000).
- III. Euskara-plana.
- IV. Gizon eta emakumeentzako aukera-berdintasuna sustatzeko plana.



2. **AUDIENZA**rekin dugun harremanean, konpromiso hauek hartzen ditugu:

<b>2.1</b>	<b>EITB sortzeko legea, eta programa-kontratua.</b> EITB Taldearen misioan ezarritako helburuak betetzea eta, horrela, euskal gizartearen aniztasuna islatzea eta euskararen garapena sustatzea.
<b>2.2</b>	<b>Kazetaritzaren printzipioak.</b> Kalitateko edukiak diseinatu eta ekoiztea. Kazetaritzaren printzipioak eta EITBren Estilo Liburuan jasotako irizpideak babestea.
<b>2.3</b>	<b>Publikoaren eskubideak, eta erreplikarako eta zuzenketarako eskubidea.</b> Indarrean dauden legeen eta EITBren Estilo Liburuan jasotako irizpideen arabera gauzatuko dira.
<b>2.4</b>	<b>EITBren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoa.</b> EITB Taldearen komunikabideetara jotzen duten ikus-entzuleei arreta ematea, eta behar bezala erantzutea ohiko baliabideen bitartez egiten dituzten kontsulta, iradokizun eta kexei.
<b>2.5</b>	<b>Publizitatea, edukien sailkapena, eta haurren ordutegiaren babesa.</b> Legeria eta, hala badagokio, EITB Ente Publikoko Administrazio Kontseiluak hartutako barne-arauak betetzea.

Aplikagarriak diren lege araez gain, EITB Taldeak hurrengo barne arauak ezarri ditu:

- I. EITBren Estilo Liburua.
- II. Erredakzio Estatutua.
- III. Legebiltzarrari albistegietako aniztasun politikoaren gaineko txostenak helarazteko konpromisoa.
- IV. Euskadin publizitate eta komunikazio ez-sexistarako kode deontologikoa eta autorregulazio-kodea.
- V. Haur eta gazteen programazioaren edukiak autokontrolatzeko akordioa.
- VI. EITBren hedabideetan publizitatea emateko arau erregulatzailerak.
- VII. Administrazio Kontseiluaren Araudia (IV. titulua - EITBren Teleikusle, Irrati-entzule eta Internauten Defentsa Bulegoa).

3. **HIRUGARREN**ekin eta **MERKATUA**rekin dugun harremanean, konpromiso hauek hartzen ditugu:

<p><b>3.1</b></p>	<p><b>Lehia leiala.</b></p> <p>EITB Taldeak aplikagarria zaion legeria beteko du; horretarako, edukiei dagokien kontratazio merkantila eta gainerako arloei dagokien kontratazio administratiboa bereiziko ditu.</p> <p>Konpromisoa hartzen du lehiarako, aukera-berdintasunerako eta gardentasunerako legezko printzipioen arabera kontratatzeko, eta lehiaren defentsa-legeak betetzeko, jarduten duen herrialde bakoitzeko zuzenbidea aplikatuz.</p>
<p><b>3.2</b></p>	<p><b>Kudeaketaren zintzotasuna.</b></p> <p>Gaitzesgarritzat jotzen da edozein eroskeria, eta berariaz debekatzen zaie langileei hirugarrenengandik ordainketa desegokiak hartzea edo ematea. Debekatuta daude, halaber, 200 euro baino gehiagoko opariak, eta dohain eta mesedeak, baldin eta pentsatzekoa bada berorien balioak edo zirkunstanziek eragina izan dezaketela emailearen enpresen harreman komertzial, administratibo edo profesionaletan.</p>
<p><b>3.3</b></p>	<p><b>Kalitatea.</b></p> <p>EITBk bere enpresa-jardueraren gidari gisa ezartzen du bere produktuen eta zerbitzuen kalitatea, eta bere plantillaren eskura jarriko ditu une bakoitzean egokienak diren kalitate-kudeaketako sistemak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak. Audientziaren, enpresa hornitzaileen eta bezeroen espektatibak ahalik eta ondoen betetzen saiatuko da, eta horien beharrak aurretik ezagutzeko ahalegina egingo du.</p>
<p><b>3.4</b></p>	<p><b>Hirugarrenek emandako informazioaren konfidentzialtasuna.</b></p> <p>EITB Taldeak bermatu egiten du bere esku dituen hirugarrenen datuen konfidentzialtasuna eta pribatutasuna. EITB Taldearen plantillak datuon isilpekotasuna babestuko du bere lan-jardueretan, eta ez du informazio hori modu desegokian erabiliko.</p> <p>EITBk behar bezala aplikatuko ditu informazio pertsonaleko datuak babesteko sistemak. Legeak, betebeharrak administratiboek edo epaile batek agintzen dutenean baino ez ditu beste erakunde baten esku utziko edo publiko egingo. Era berean, EITBk bermatu egiten du hirugarrenek euren datuak kontsultatzeko eta aldatzea edo zuzentzea eskatzeko duten eskubidea.</p>

<b>3.5</b>	<b>Enpresaren ondarea eta informazioa babestea.</b> <p>EITB Taldeak eta langileek beti zainduko dituzte modurik onenean Taldeko enpresen ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak; horretarako, horri buruzko informazioaren isilpekotasuna gordeko dute, eta enpresaren jarduerekin lotuta baino ezingo da erabili. Langileen ardura da esleitu zaizkien EITB Taldearen aktiboak zaintzea eta galera, kalte, lapurreta edo erabilera ilegal edo desegokietatik babestea.</p> <p>Era berean, EITB Taldeak bere gain hartzen du enpresaren jasagarritasuna sustatzeko konpromisoa, prozesuak ongi kudeatuz, baliabide publikoak behar bezala erabiliz, eta erakundearen, beraren mendeko enpresen eta langileen irudi ona zainduz.</p>
<b>3.6</b>	<b>Bezeroekiko harremanak.</b> <p>Harreman iraunkorrak ezartzea, elkarrenganako balio-ekarpenean eta elkarrenganako konfiantzan oinarritzen direnak. Hartutako konpromisoak betetzea, gure komunikabideetan egiten duten publizitate-inbertsioari ahalik eta errentagarritasun handiena eskaintzea eta, harreman egonkor eta arinen bidez, hobetzeko egiten dituzten ohar eta ekarpenak arduraz entzutea.</p>
<b>3.7</b>	<b>Interes-gatazkak.</b> <p>EITB Taldeko langileen aldetik, saihestu beharrekoak dira interes pertsonalen eta EITB Taldearen interesen arteko gatazka eragin dezaketen egoerak. Langileek ez dute sozietatea ordezkatu, eta ez dute erabakietan esku hartuko edo eraginik izango, baldin eta beraiek edo beraiekin harreman familiar, profesional edo ekonomiko esanguratsu baten bidez lotutako hirugarren batek interes pertsonala badu zuzenean edo zeharka.</p>

Aplikagarriak diren lege arauetaz gain, EITB Taldeak hurrengo barne arauak ezarri ditu:

- I. [Publizitatearen autokontrola.](#)
- II. [Kontratazio orokorrerako eta ekoiztetxeen kontrataziorako arauak](#)
- III. [Telebistan publizitatea euskarara bikoizteko laguntza.](#)
- IV. [Hauteskundeetako publizitatearen arauketa.](#)
- V. [EITB.EUS – \*Confianza on-line\* ziurtagiriaren zigilua.](#)

4. **GIZARTEA**rekin dugun harremanean, konpromiso hauek hartzen ditugu:

<p><b>4.1</b></p>	<p><b>Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politika aplikatzea.</b></p> <p>EITB Taldeak Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politika garatuko du, eta hura publikoa izango da, aldian behin prestatzen diren Gizarte Erantzukizuneko Memorien bidez. Memoria horietan, aurrera eramaten diren printzipio eta politikak jasoko dira, baita <i>stakeholder</i>rekin harremana nola kudeatzen den ere.</p>
<p><b>4.2</b></p>	<p><b>Gardentasuna.</b></p> <p>Akziodunarekiko eta merkatuarekiko enpresa-portaeraren printzipio zuzendari gisa, EITB Taldeak benetako informazioa emango du, osoa, gizartearen egiazko irudia isla dezakeena, eta EITBren enpresa-jardueren eta negozio-estrategien irudi leiala eman dezakeena.</p> <p>Legez exijitzen den informazio esanguratsua eta EITB Taldearen iritziz gizarteari eta mundu akademikoari interesgarri izan dakioken beste edozein informazio eskuragarri eta eguneratuta egongo da EITB.EUS-en (EITBren gardentasun-atarian, EITBren prentsa-aretoan zein "EITBn lan egin" gunean). Bilatzaileen bidez erraz aurkitzeko moduan egongo da.</p>
<p><b>4.3</b></p>	<p><b>Ingurugiroa.</b></p> <p>EITB Taldeak bere gain hartzen du aplikagarri zaion ingurugiro-legeria zorrotz betetzeko konpromisoa. Bere gain hartzen du, halaber, jarduerak betetzean ingurugiroa ahalik eta gehien babesteko konpromisoa, bai eta bere jarduerak eragiten duen ingurugiro-eragina murrizteko konpromisoa ere. Bere langileen esku jarriko ditu horretarako baliabiderik egokienak. Era berean, EITB Taldeak natura-baliabideak eta ekologia, paisaia, zientzia edo kultura aldetik interesa duten espazioak kontserbatzen lagunduko du. Horretarako, jardunbiderik egokienak ezarri eta, langileen artean, horiek ezagutaraztea eta erabiltzea sustatuko du.</p>

Aplikagarriak diren lege arauetz gain, EITB Taldeak hurrengo barne arauak ezarri ditu:

- I. Gardentasun Ataria EITB.EUS-en.
- II. Ingurugiro-kudeaketarako sistema, ISO 14000 arauari jarraituta.
- III. Gizarte Erantzukizuneko Memoriak.
- IV. Enpresaren gobernamenduari eta gardentasunari buruzko txostena.

V. EITB taldearen Etika eta Jokabide Kodea.

**5. ERREKUPERAZIO, TRANSFORMAZIO eta ERRESILENTZIA**ren inguruko konpromezu etiko espezifikoak:

*EITB Taldeko langileak, zuzendariak eta edonolako ardura kargua dutenak herritarrei eman beharreko zerbitzuarekin, interes orokorraren defentsarekin eta eratziki zaizkien zereginak gauzatzearen konpromezua dute, ordenamendu juridikoko arauak beteaz. Haien jarduera hurrengo printzipio etikoetan oinarritzen da:*

<b>5.1</b>	Ordenamendu juridikoa osatzen duten arauen betepena.
<b>5.2</b>	Herritarren interes orokorra asebetetzea, jarduera guztiak inpartzialtasuna eta interes komunera bideratuz, interes pertsonal, familiar, korporatibo, kilentelar edo bestelakoak alde batera utzita.
<b>5.3</b>	Administrazioarekiko eta haien nagusiekiko leialtasuna erakustea.
<b>5.4</b>	Oinarrizko eskubide eta askatasun publikoen errespetua, edozein arrazoigatiko diskriminazioa suposa dezaketen jardunbideak baztertuz.
<b>5.5</b>	Interes pertsonala dagoen asuntoetan abstentzioa, eta baita edozein jarduera pribatuan ere, baldin eta eginkizun publikoarekin interes tala suposa badezake.
<b>5.6</b>	Izaera publikoa duen lanpostuarekin talka suposa badezakete, inbertsioak eta finantza-operazioak baztertzea.
<b>5.7</b>	Justifikaziorik ez duen abantaila suposa dezaketen mesede, faborezko tratu edo egoera guztiak baztertzea.
<b>5.8</b>	Gauzatzen diren jarduera guztietan eraginkortasuna, efizientzia eta ekonomia printzipioak errespetatzea, beti interes orokorra eta EITB Taldearen helburuak betetzea bilatuz.
<b>5.9</b>	EITB Taldearen prozeduren ebazpenetan arrazoirik ez duten edonolako eraginak baztertzea, batez ere hirugarren bati edo norberari abantaila edo pribilegio bat suposatuko badute edota hirugarrenen eskubideak afektatuko badira.
<b>5.10</b>	Modu arduratsu eta eraginkor batean norberari dagozkion lanak, zereginak eta eginkizunak gauzatzea.
<b>5.11</b>	Norberaren lanak eta eginkizunak zerbitzu publikoarekiko dedikazio printzipioa oinarrian izanda gauzatzea eta zerbitzu publikoari dagozkion eginkizunetan neutraltasuna kaltetu dezaketen aktuazioak egitea ekiditea.

**5.12** Sekretupeko gaiak sekretupean gordetzea eta norberaren kargua dela-eta ezagutzen diren gaiak behar besteko diskrezioarekin tratatzea. Informazio hori inoiz ezingo da erabili norberaren edo hirugarrenen mesederako, ezta interes orokorraren kaltetan.

⇒ *Aurrekoaz gain, Euskadiko Goi Kargu diren pertsonak, Kargu Publikoen Kode Etikora atxikitu beharko dira eta bertan ezartzen dena zehatz mehatz bete beharko dute.*